



“B” GUTUN-AZALAREN ESKAINTZEI BURUZKO TXOSTENA

AUTOMATIKOKI EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK

ESPEDIENTEAREN DATUAK

- Objektua: Mutrikuko “Anai Arte Biltokia” Hirugarren Adineko Zentroaren taberna-kafetegia zerbitzua, atezaintza zerbitzua eta garbiketa eta mantentze-zerbitzua.
- Kontratu-Mota: Administrazio mailako Kontratu Berezia.
- Epea: Urte bat iraungo du, beste urtebeteko luzapen aukerarekin.
- Eskaintzak aurkezteko epea: 2024ko urtarrilak 5a.
- Prozedimentua eta esleipen-modua: Irekia eta lehiaketa bidez, urgentziatzko prozedimentuz.

KONTRATAZIO-MAHAIKO KIDEAK

- Ioseba Iribar Garrastazu, Idazkari-Kontuhartzailea
- Ane Arreiturandia Elordi, Idazkaritzako Teknikaria
- Inhar Mutiozabal Zabala, Gobernantza-alorreko Zinegotzia

AURKEZTURIKO ESKAINTZAK

Aurkeztutako eskaintzak edo proposamenak bost izan dira:

- 1 zenb.ko proposamena. Erregistroko 24-2024 sarrera zenbakia. Luz Marina Usme Ortiz and.
- 2 zenb.ko proposamena. Erregistroko 27-2024 sarrera zenbakia. Pedro Figueroa Abreu jauna.
- 3 zenb.ko proposamena. Erregistroko 28-2024 sarrera zenbakia. Sandra Silvana Castro Cordova and.
- 4 zenb.ko proposamena. Erregistroko 20-2024 sarrera zenbakia. Rosalinda Garcia Montoya and.
- 5 zenb.ko proposamena. Erregistroko 2394-2023 sarrera zenbakia. Nancy Bulu and.

BALORAKETA IRIZPIDEAK

Kontratu hau arautzen duten Baldintza Administrazioen Agiriari jarraituz “A” gutunazalean jasotzen diren balio judizio baten menpe dauden irizpideen balorazia egin da urtarrilaren 12ko txostenaren bidez eta orain “B” gutunazala ireki da. Honen barruan automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideei dagozkien agiri eta datuak sartu behar ziren, baina bi kasutan “A” gutunazalean sartu beharreko zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko memoria edota agiriak sartu dituzte.

Egitate honen aurrean, bi proposamengile hauek aurreikusitako prozedimentua ez dutenez bete, eta konkurrentzia, objektibotasuna eta inpartzialtasuna urratu dezaketenez, kontratazio espedientetik kanpo utzi litezke. Hala ere, epaimahai honek erakutsi duten interesa kontuan izanik, eta esleipen prozesuarentzat eta zerbitzuaren interes orokorarentzako kontratazio espedientean jarraitzea onartu du baina beti ere, beste hiru hautagaien atzetik joango liratekete, berdin duelarik zein puntuaketa lortu duten 12.klausulan zehazten diren balio judizio baten menpe dauden irizpideen atalean.

Horrenbestez, behar den moduan aurkeztu ez dituzten bi proposamenen balio judizio baten menpe dauden irizpideen balorazioa ondokoa izan da:

1.- Zerbitzua martxan jartzeko proiektua

Atal honetan zerbitzuaren deskribapena eta funtzionamendua aztertuko da.

1. Pedro Figuroa Abreu jauna:

Taberna-kafetegiko zerbitzua era lausoan azaltzen du. Dena den, funtzionamenduari dagokionez, iradokizunak onartzeko prest aurkitzen da. Hasiera batean, familia-negozio gisa egituratu du zerbitzua.

2. Sandra Silvana Castro Cordova andrea:

Bere proposamenean emango dituen zerbitzuak era labur eta orokorrean deskribatzen ditu. Baldintza teknikoetan, exekuziori dagokionez, hirugarren adinekoek momentu oro lehentasuna izango dutela azpimerraten du. Bestalde, ez ditu instalazioen kontserbatze-, mantentze- eta garbitze- zerbitzua zein atezain- zerbitzua aipatzen. Langileen antolaketa eta funtzioak ere ez dira azaltzen.

2.- Zerbitzuaren funtzionamendua

Irizpide honetan emango den zerbitzua (taberna-kafetegi, kontserbatze-mantenua eta garbiketa) zein izango den eta ordutegia ere zehaztu beharko da.

1. Pedro Figuroa Abreu jauna:

Ez du azaltzen taberna-kafetegiko zerbitzua, ezta ere izango duen ordutegia. Orokorrean, pintxo eta plater konbinatuak eskainiko dituela aipatzen du.

2. Sandra Silvana Castro Cordova andrea:

Taberna-kafetegiko zerbitzua era zehaztugabea deskribatzen du, eskainiko dituen produktuen aipamen hutsa egiten duelarik. Horien artean, edari hotzak eta beroak, plater konbinatuak, ogitartekoak eta razioak aurkitzen dira.

3.- Lanpostuari egokitako printzipio eta ezaugarri pertsonalak

Irizpide honetan lizitatzailleek sukaldaritzan eta ostalaritzan emandako zerbitzuak, arduradun, sukaldari edo zerbitzari gisa aztertuko dira lanpostuarekiko duten egokitasuna baloratu.

1. Pedro Figuroa Abreu jauna:

Ostalaritzan 15 urteko lan-esperientzia duela aipatzen du. Gainera, bere emaztea Mutrikuko "Tamayo" izeneko tabernaren arduraduna da.



Mutrikuko Udala

2. Sandra Silvana Castro Cordova andrea:

Ez du sukaldaritzan eta ostalaritzan izandako esperiatzia edo formakuntza adierazten.

4.- Konpromiso soziala edo klausula soziala

Irizpide honetan lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzeke konpromisoa aztertuko da.

1. Pedro Figueroa Abreu jauna:

Ez du lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzeke konpromisoari buruz ezer adierazten. Hasiera batean, bere emaztea eta alabarekin arituko da lankidetzan. Dena den, langabezian aurkitzen dela aipatzen du.

2. Sandra Silvana Castro Cordova andrea:

Ez du langileen kontratazioari buruz ezer aipatzen.

5.- Zerbitzuan sartzeko hobekuntzak edo lizitatzailaren proposamenak

Irizpide honetan aurreko 4 puntuetan jasotako zerbitzuen deskribapenetan aztertutako eremu guztietan sartu ahal izango diren hobekuntzak baloratuko dira.

1. Pedro Figueroa Abreu jauna:

Ez ditu zerbitzuan sartzeko hobekuntzak aipatzen.

2. Sandra Silvana Castro Cordova andrea:

Berezitasun gisa, urtebetetzeak bezalako ekitaldi ezberdinak bertan ospatzeko aukera proposatzen du.

ESKAINTZAGILEAK	Zerbitzuaren proiektua (10 puntu)	Zerbitzuaren funtzionamen. (15 puntu)	Lanpostuarekiko egokitzapena (10 puntu)	Klausula soziala (10puntu)	Zerbitzuaren hobekuntzak (15 puntu)	Guztira
Pedro Figueroa Abreu	3	3	7	5	0	18
Sandra Silvana Castro Cordova	4	4	0	0	5	13

Guztira, "A" gutunazalean jasotzen diren balio judizio baten menpe dauden irizpideen balorazioan ondoko emaitzak izan dituzte (bi kasu bereziak barne):

ESKAINTZAGILEAK	Zerbitzuaren proiektua (10 puntu)	Zerbitzuaren funtzionamen. (15 puntu)	Lanpostuarekiko egokitzapena (10 puntu)	Klausula soziala (10 puntu)	Zerbitzuaren hobekuntzak (15 puntu)	Guztira
Luz Marina Usme Ortiz	6	9	4	7	10	36
Pedro Figueroa Abreu	3	3	7	5	0	18
Sandra Silvana Castro Cordova	4	4	0	0	5	13
Rosalinda Garcia Montoya	8	11	8	7	10	44
Nancy Bulu	6	9	6	6	7	34

Automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak

Jarraian, kontratu hau arautzen duten Baldintza Administrazioen Agiriko 12. klausulan zehazten diren automatikoki ebaluatu daitezkeen irizpideak ("B" gutunazala) kalkulatu dira, beti ere eskaintza aurkezten dutenen egoera sozialari buruzkoak, ondoko zehaztapenak jarraituz, gehienez lortu daitezkeen puntuak 40 direlarik:

- 1.- Langabezian egotea: 15 puntura arte
 - Bi urtera arte: 5 puntu
 - Bost urtera arte: 10 puntu
 - Bost urtetik aurrera: 15 puntu
- 2.- Adina: 10 puntura arte:
 - 50 urte baino gehiago: 5 puntu
 - 55 urte baino gehiago: 7 puntu
 - 60 urte baino gehiago: 10 puntu
- 3.- Famili-kargak izatea: 5 puntura arte.
 - 2 senide baino gehiago ardurapean izatea: 5 puntu.
 - Gehienez 2 senide ardurapean izatea: 3 puntu.
 - Guraso bakarreko familiak: 3 puntu.
- 4.- Emakumea izatea: 10 puntu.



Mutrikuko Udala

	Langabezian egotea (15 puntu)	Adina (10 puntu)	Famili-kargak izatea (5 puntu)	Emakumea izatea (10 puntu)	GUZTIRA
Luz Marina Usme Ortiz	0	7	0	10	17
Pedro Figueroa Abreu	0	0	3	0	3
Sandra Silvana Castro Cordova	0	7	0	10	17
Rosalinda Garcia Montoya	0	10	0	10	20
Nancy Bulu	0	0	3	10	13

ONDORIOA ETA PROPOSAMENA

Ondorioa:

Kontuan harturik baloraketa osotariko emaitza ondoko taulan jasotzen da puntuaketa handienetik txikienerako hurrenkeran:

	ESKAINTZAGILEAK	A GUTUNAZALA Balio judizioak (60 puntu)	B GUTUNAZALA Automatikoak (40 puntu)	Guztira
1	Rosalinda Garcia Montoya	44	20	64
2	Luz Marina Usme Ortiz	36	17	53
3	Nancy Bulu	34	13	47
4	Sandra Silvana Castro Cordova	13	17	30
5	Pedro Figueroa Abreu	18	03	21

Proposamena:

Kontuan harturik aurreko ondorioa kontratazio-mahai honek kontratazio-organoari ondoko esleipen proposamena helarazten dio:

Rosalinda Garcia Montoya andreari esleitzea Mutrikuko "Anai Arte Biltokia" Hirugarren Adineko Zentroaren taberna-kafetegia zerbitzua, atezaintza zerbitzua eta garbiketa eta mantentze-zerbitzua.

Mutrikun, 2024ko urtarrilaren 18an

KONTRATAZIO MAHAIAREN IDAZKARIA

Ioseba Iribar Garrastazu